bi urte atzeratu du malgutasuna ezartze arren ikusita merkatarien egoera zein zen. Foru Aldunditik planteatzen dira kenkariak zerga aitorpenean baina eskari horrekin lotuta. Desproposito bat iruditzen zaigu merkatariei hau eskatzea. Iruditzen zaigu goxokitxo bat ematea bezala dela. *Software* euskaraz jartzeko baliabideak izatea eskatzen du. Arazoa ez da formazio jaso edo ez, baizik eta inbertsioak egin behar dituztela. Digitalizazioa sustatzeko beti egon dira diru laguntza batzuk, baina orain onuraduna izateko baldintza da, eskariarekin 15 faktura aurkeztea. Ateratzeko moduan tranpa dagoela iruditzen zaigu. 250 € aurreikustea *software* euskaraz jartzeagatik…, ez zaigu bidezkoa iruditzen."

marcando, este año prima la solicitud. La Diputación Foral de Bizkaia ha retrasado dos años la implantación para dar flexibilidad a la vista de la situación de los comerciantes. Desde la Diputación se plantean deducciones en la declaración de impuestos pero relacionadas con esta solicitud. Nos parece un desproposito pedir esto a los comerciantes. Nos parece que es como darles un caramelo. Requiere disponer de recursos para poner el software en euskera. El problema no es que reciban o no formación, sino que tienen que hacer inversiones. Para fomentar la digitalización siempre ha habido algunas subvenciones, pero ahora es requisito para ser beneficiario, presentar 15 facturas con la solicitud. Tenemos la sensación de que hay trampa. Prever 250 € por poner software en euskera no nos parece justo."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Esan duzu derrigortasuna ezartzeko momentua ez dela. Hori ez da gure eskumenekoa. Bizkaiko Foru Aldundiak atzeratzea erabaki duen bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jartzea erabaki du, egokitzapenekin eta datetan aldaketa txiki batzuekin, baina guk hor ez daukagu eskumenik ezer adosteko. %60ko kenkaria aplikatzen da baina Foru Arau horrek ere aldaketak izaten ari da. Hasieran azarora arte eskatzen zutenei aplikatzen zien %60ko kenkaria eta orain sektore edo epigrafe ezberdinei epe ezberdinak jarri dizkie eta orduan da derrigortasuna baino lehen egiten duten eskariarengatik. *Software* inplantatzeagatik %60ko kenkaria, baina beste diru laguntzak batzuk ere badaude, bai Foru Aldundiak eta baita ere Eusko Jaurlaritzak ateratakoak. Horietara aurkeztu daitezke baliabideak erosteko. Guk egiteko asmoa duguna da inkesta bat luzatu, ostalari, merkatari eta "ticket bai" derrigortasuna eduki dezaketenentzat, jakiteko zein baliabide berri erosi behar izan dituzten "ticket bai", inplantatzeko. Guk hemen indartu nahi duguna da euskararen erabilera areagotzea eta hizkuntza paisaia euskaldunagoa izatea eta hortik datoz gaur proposatzen ditugun diru laguntza hauek."

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV):" Dices que no es el momento de establecer la obligatoriedad. Eso no es de nuestra competencia. Al igual que la Diputación Foral de Bizkaia ha decidido posponerlo, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha decidido ponerlo en marcha con adaptaciones y pequeños cambios en las fechas, pero nosotros ahí no tenemos competencias para acordar nada. Se aplica una deducción del 60% pero esta Norma Foral también está experimentando cambios. Al principio aplicaba una deducción del 60% a quienes la pedían antes de noviembre y ahora ha puesto diferentes plazos a diferentes sectores o epígrafes y deben hacer la solicitud antes de la obligatoriedad. Se trata de una deducción del 60% por implante de software, pero también hay otras subvenciones, tanto de la Diputación Foral como del Gobierno Vasco. Se puede recurrir a estas ayudas para comprar recursos. Nosotros tenemos la intención de realizar una encuesta, a los comerciantes, hosteleros y demás sevicios que tienen la obligatoriedad de poner Ticket bai, para saber qué nuevos recursos han tenido que comprar para su implantación. Lo que nosotros queremos aquí es aumentar el uso del euskera y hacer que el paisaje lingüístico sea más euskaldun y de ahí estas subvenciones que proponemos hoy."

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Aldundiaren eskumena dela ados, baina zuek Alkateak zaretenok merkatarien zalantzak transmititzeko gai zarete. Pentsatzen dut Bizkaian horrela izan dela."

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "De acuerdo en que es competencia de la Diputación, pero vosotros los alcaldes podéis

transmitir las dudas de los comerciantes. Creo que en Bizkaia ha sido así."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Erabaki horretan hainbat eragileek parte hartuko zuten eta batzar nagusietan adostu izan dena da "ticket bai" aurrera eramatea. Ez da inolaz ere pilota kanpora botatzea baizik eta momentua izan edo ez bakoitzak bere eskumenak ditu eta guk hor ezer gutxi egin dezakegu. Guzti honen oinarria iruzur fiskala kontrolatzea da."

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "En ese acuerdo habrán intervenido diferentes agentes y lo que se ha acordado en las Juntas Generales es implantar 'kicket bai'. En ningún caso se trata de echar balones fuera, sino que sea el momento o no cada uno tiene sus competencias y nosotros ahí poco podemos hacer. Todo esto se basa en el control del fraude fiscal.

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Esan duzu inkesta bat luzatuko zaiela merkatariei baina jakin hori guk batzordean proposatu genuela eskabidean sartzea galdera bat jakiteko zein inbertsio egin behar izan duten. Iruditzen zait laguntza hauek atera baino lehen egin beharko litzatekeela inkesta hori jakiteko diru laguntzak nola bideratu. Ez dago soberan, baina…"

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Has dicho que se va a hacer una encuesta a los comerciantes, pero fuimos nosotros los que propusimos en comisión que se incluyera en la solicitud una pregunta para saber qué inversión han tenido que hacer. Me parece que había que hacer esa encuesta antes de sacar estas ayudas para saber que ayudas dar. No está de más, pero es que…

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Nik uste dut batak ez duela bestea kentzen, kontuan izanda dirulaguntza hauen oinarria dela hizkuntza paisaia eta euskararen erabilera areagotzea."

Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Yo creo que lo uno no quita lo otro, teniendo en cuenta que estas subvenciones son para el incremento del paisaje lingüístico y del uso del euskera."

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Tras realizar la votación se ha obtenido el siguiente resultado:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Votos a favor: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin ondorengo oinarriak onartu dira:

En consecuencia se han aprobado las siguientes bases con la mayoría absoluta.

"TicketBAI" fakturazio sistemarako euskarazko softwarea erosteko diru laguntzen oinarriak eta deialdia. 2021.urtea

"Bases y convocatoria de subvenciones para la compra del software en euskera para el sistema de facturación "TicketBAI". Año 2021.

1. XEDEA

Diru laguntza honen helburua Merkataritza sektorea bultzatzea da. Bultzada horrek Udalaren izaerarekin ( Zerbitzuak euskarazk eskaintzea) lotura izatea sustatu nahi da. Horretarako sustatu nahi dena da erosketa tiketak euskaraz eman ahal izateko TicketBAI" fakturazio aplikazioan softwarea hizkuntza horretan ezartzea.

1.OBJETO

El objetivo de esta subvención es impulsar el sector comercial. Se pretende fomentar que ese impulso esté vinculado al carácter del Ayuntamiento (ofrecer servicios en euskera).Para ello, se pretende fomentar la implantación del sotware en euskera en la aplicación de facturación "TIcketBAI" para poder emitir los tickets de compra en euskera.

Hori guztia, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 17.25 artikuluak Udalari emate dion eskumenaren arabera: "Toki-ekonomia-eta gizarte-garapena".

2. FINANTZIAZIOA

2021eko udal aurrekontuan 0243.471.335.30.02 kontusailean, 6.500 euroko kreditua aurreikusi da merkatari, ostalari eta zerbitzu sektorekoentzat helburua honetarako: Ticket Bai" fakturazio sisteman euskarazko softwarea jartzeko.

Gehieneko zenbateko osoaz gain, aurkeztutako eskabideak ikusita, zenbateko gehigarri bat onartu ahal izango da, dagokion aurrekontu aldaketa onartu ondoren, diru laguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

3. ONURADUNAK

Diru laguntza jaso ahal izango du aldez aurretik eskatuta, Beasainen jarduera ekonomiko garatzen duenak eta horren ondorioz helbide fiskala udalerrian duenak.

4. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

-Jarduera ekonomikoa Beasainen kokatuta egotea.
-Ekonomia jardueren gaineko zergan alta emanda egotea eskaerak aurkeztu beharreko datan.
-Udal Ogasunarekin zorrik ez izatea.
-Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.
Egiaztapen hau ofizioz egingo da administrazio horietan, salbu eta interesduna modu arrazoituan aurka agertzen bada.

5. DIRU LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Todo ello en virtud de la competencia que al Ayuntamiento otorga el artículo 17.25 de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi "Desarrollo local , económico y social"".

2. FINANCIACIÓN

En el presupuesto municipal de 2021, se ha previsto en la partida presupuestaria . 0243.471.335.30.02 Subvenciones:,"TicketBAI" software en euskera un crédito de 6.500 euros para comerciantes, hostelería y sector servicios con el siguiente objeto: instalación de software en euskera en el sistema de facturación "TicketBAI".

Además del importe máximo total, a la vista de las solicitudes presentadas, podrá aprobarse un importe adicional, previa aprobación de la correspondiente modificación presupuestaria, con carácter previo a la resolución de la subvención.

3.BENEFICIARIOS

Podrán recibir subvención previa solicitud, quien realice una actividad económica en Beasain y en consecuencia tenga el domicilio fiscal en el municipio.

4.OBLIGACIONES DE LOS BENEFICIARIOS

-Que la actividad económica esté ubicada en Beasain.
-Estar dado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas a la fecha de presentación de las solicitudes.
-No tener deudas con la Hacienda municipal.
-Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con la Hacienda Foral y la Seguridad Social. Esta comprobación se realizará de oficio ante las citadas Administraciones, salvo oposición motivada de parte interesada.

5. PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN DE LA SUBVENCIÓN

Diru laguntzak 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei emanego zaizkie.

Las subvenciones se concederán a quienes cumplan los requisitos del artículo anterior y su cuantía será la indicada en el artículo 7.

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz.

La gestión de las ayudas previstas corresponde a la subárea de Cultura, Euskera y Comercio. El personal técnico del Departamento se encargará del análisis y evaluación de las solicitudes presentadas.

Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hilabeteko epean.

La concesión o denegación de las ayudas se realizará mediante resolución de la Alcaldesa, que será notificada a la persona solicitante en el plazo de un mes desde la fecha fin de presentación de solicitudes.

Ordainketa, Alkateak diru laguntzaren ebazpena ematen duenetik hilabeteko epean egingo da.

El abono de la subvención se efectuará en un mes desde que se dicte la resolución.

6. DIRU LAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

6. COMPATIBILIDAD DE LAS SUBVENCIONES

Oinarri hauetan zehaztutako diru laguntzak osagarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin.

Las subvenciones establecidas en estas bases tendrán carácter complementario con las ayudas otorgadas por otras entidades.

7. DIRU LAGUNTZEN ZENBATEKOA

7. IMPORTE DE LAS SUBVENCIONES

Eskabide bakoitzak “TicketBAI” aplikazioa euskarazko softwarearen kostuaren %30eko diru laguntza jasoko du eta gehienez ere 250€.

Cada solicitud recibirá una subvención del 30% del coste del software en euskera para instalar la aplicación “TicketBAI” y como máximo 250€.

Diruz lagunduko den gastua 2021eko ekitaldi ekonomikoan egindakoa izan beharko du.

El gasto a subvencionar deberá haberse realizado en el ejercicio económico 2021.

8. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

8. DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

Diru laguntza jaso ahal izateko agiri hauek aurkeztu beharko dira abenduaren 30a baino lehen.

Para poder optar a la subvención se deberá presentar la siguiente documentación:

- Eskabide orria sinatuta (1. eranskina)
- Pertsona juridikoen kasuan IFKren kopia eta pertsona fisikoen kasuan NAren copia.
- JEZn alta emanda egotea.
- Softwarearen erosketako faktura.

-Impreso de solicitud firmado (Anexo 1)
-Copia del CIF en el caso de personas jurídicas o DNI en el caso de personas físicas.
- Alta en el IAE.
-Factura de compra del software.

9. OINARRIAK ARGITARATZEA ETA ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

9. PUBLICACIÓN DE BASES Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

Oinarriak BDNSra bidaliko dira eta ondoren GAOn argitaratuko dira.

Las bases se enviarán a BDNS y posteriormente se publicarán en el BOG.

Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

Plazo y modo de presentación de solicitudes:

-Noiz: Eskabideak oinarriak GAOn argitaratzen diren hurrengo egunetik 2021eko abenduaren 29ra arte.

-Moduak:

- Diru laguntza eskatzen dutenek eskaera orria eta aurkeztu beharreko agiriak iGunean aurrez aurre aurkeztuta, aurretiko txanda eskatuta.

Eskaera orria Beasaingo Udalaren web orritik jaitsi eta inprima daiteke.

- Udalaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztuta.

10. ERREKURTSOAK

Honako oinarri hauen aurka berraztertze ko errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean."

-Cuándo: a partir del día siguiente al de la publicación de las bases en el BOG hasta el 29 de diciembre de 2021.

-Modos

- Presentación de la solicitud y de la documentación requerida en iGunea de forma presencial, solicitando cita previa. La solicitud se puede descargar e imprimir desde la página web del Ayuntamiento de Beasain.

- Presentación a través del registro electrónico municipal.

10.- RECURSOS

Contra las presentes bases podrá interponerse, en el plazo de un mes, recurso de reposición ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo."

b.- KONTRATUA LUZATZEA. MENDEKOTASUNA DUTEN ADINEKO PERTSONENTZAKO BEASAINGO LOINATZ EGUNEKO ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ETA BEASAINGO UDALERRIAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAK EMATEKO.2016BIBO0028

Herritarrak batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman da:

"*AURREKARIAK*

*I.- 2016-04-29. Udalbatzak egindako bileran, Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako Beasaingo Loinatz eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa eta Beasaingo udalerrian etxez etxeko laguntza zerbitzuak, prozedura irekiaren bidez kontratatzeko deialdi publikoa egitea erabakitzen da eta horretarako dagozkion baldintza pleguak onartu dira.*

*II.- 2016-07-28. Udalbatza Osoak erabaki du, GOXARA, S.L.ren alde esleipen proposamena egitea eta 2016-10-11n, behin betiko esleipen Ebazpena ematen da.*

b.- PRÓRROGA DE CONTRATO. SERVICIO DE USO Y GESTIÓN DEL CENTRO DE DÍA LOINATZ PARA PERSONAS MAYORES EN SITUACIÓN DE DEPENDENCIA Y DEL SERVICIO DE AYUDA DOMICILIARIA EN EL MUNICIPIO DE BEASAIN.

Se ha informado la siguiente propuesta de la comisión de Ciudadanía:

*"ANTECEDENTES*

*I.- 29-04-2016. El Ayuntamiento Pleno acuerda efectuar convocatoria pública para la contratación por procedimiento abierto del servicio de uso y gestión del centro de día de Loinatz para personas mayores en situación de dependencia y del servicio de ayuda domiciliaria en el municipio de Beasain, aprobando para ello los correspondientes pliegos de condiciones.*

*II.- 28-07-2016. El Ayuntamiento Pleno acuerda efectuar propuesta de adjudicación a favor de*

GOXARA, S.L y el 11-10-2016, se emite Resolución de adjudicación definitiva.

*III.- 2016-11-07. GOXARA S.L. enpresarekin kontratua sinatzen da. Egikaritze epea lau urtetakoa da, urtebeteko bi epealditan luzatzeko aukerarekin. Luzapena espresuki adierazi beharko da eta eskumena duen organoak erabakia hartu beharko du.*

*III.- 7-11-2016. Se firma el contrato con la empresa GOXARA S.L. El plazo de ejecución es de 4 años, prorrogable por otros dos períodos de un año. La prórroga será en todo caso expresa y deberá ser acordada por el órgano competente.*

*IV.- 2020-04-8. Alarma egoera aitortu izanaren arabera, Udalbatza Osoak egindako bilkuran kontratua partzialki etetea erabakitzen du. 2020-06-29an kontratuaren etenaldia altxatzea Eguneko Zentroari dagokionez eta kontratua aldatzea erabakitzen da, Eguneko Zentroaren prestazioagatik ordaindu beharreko prezioa ezartzeko irizpideari dagokionez.*

*IV.- 8-04-2020. Como consecuencia de la declaración del estado de alarma, el Ayuntamiento Pleno acuerda la suspensión parcial del contrato. Con fecha 29-06-2020 acuerda levantar la suspensión del contrato en lo que al Centro de Día se refiere y modificar el contrato en cuanto al criterio para establecer el precio a abonar por la prestación del Centro de Día.*

*V.-2020-10-29. Udalbatza Osoaren erabakia, beste urte betez kontratua luzatzeari buruzkoa, hau da, 2020-11-07tik 2021-11-06arte.*

*V.- 29-10-2020. Acuerdo del Ayuntamiento Pleno de prórroga de contrato por un año, esto es, desde el día 7-11-2020 hasta el día 6-11-2021.*

*VI.- 2021-07-21. Udalaren asmoa kontratua beste urte betez luzatzeari buruzko jakinarazpena Goxara S.L.ri, 7 eguneko epean erantzuna eskatuz.*

*Egun berean Goxara S.L.ak jakinarazten du ados dagoela kontratua luzatzeko proposamenarekin.*

*VI.- 21-07-2021. Notificación a Goxara S.L. relativa a la intención del Ayuntamiento de prórroga de contrato por un año más, solicitando respuesta en el plazo de 7 días.*

*El mismo día Goxara S.L. comunica estar de acuerdo con la propuesta de prórroga de contrato.*

*VII.- 2021-08-10 Gizarte Ongizate azpi arloko arduradun teknikoak kontratua luzatzearen aldeko proposamen txostena egin du.*

*VII.- 10-08-2021. La responsable técnico de la subárea de Bienestar Social emite informe de propuesta favorable a la prórroga de contrato.*

*OINARRI JURIDIKOAK*

*- Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako Loinatz eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa eta Beasaingo udalerrian etxez etxeko laguntza zerbitzuak, prozedura irekiaren bidez kontratatzeko baldintza plegua.*

*BASES JURIDICAS*

- *Pliego de condiciones para la contratación por procedimiento abierto del servicio de uso y gestión del centro de día Loinatz para personas mayores en situación de dependencia y del servicio de ayuda domiciliaria en el municipio de Beasain.*

*PROPOSAMENA*

*PROPUESTA*

*Herritarrak batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio, azter dezan:*

*Lehenik: Urtebeterako eta egungo baldintzetan, prezioa barne, GOXARA S.L.enpresari kontratua luzatzea, mendekotasuna duten adineko pertsonentzako Beasaingo Loinatz eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa eta Beasaingo udalerrian etxez etxeko laguntza zerbitzuak emateko.*

*Bigarren: Luzapena 2021ko azaroaren 7tik 2022ko azaroaren 6ra izango da; epe hau amaitu ondoren ez dago beste luzapen berria egiteko aukerarik*

*Hirugarren: GOXARA S.L. enpresari erabaki honen berri ematea."*

*La Comisión de Ciudadanía somete a la consideración del Pleno municipal, la siguiente propuesta de acuerdo:*

*Primero: Prorrogar por un año y en las actuales condiciones, incluido el precio, el contrato con la empresa GOXARA S.L. para la prestación del servicio de uso y gestión del centro de día Loinatz para personas mayores en situación de dependencia y del servicio de ayuda domiciliaria en el municipio de Beasain.*

*Segundo: La prórroga tendrá efectos desde el día 7 de noviembre de 2021 hasta el día 6 de noviembre de 2022; una vez finalizado este período no existe posibilidad de nueva prórroga.*

*Tercero: Dar traslado de este acuerdo a la empresa GOXARA S.L"*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

En el turno de intervenciones los asistentes manifiestan las siguientes opiniones:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Se dice en la propuesta que la responsable de bienestar social emite informe y ese informe se debería adjuntar con la documentación. No lo hemos visto. A todos nos ha llegado la noticia de la situación de las trabajadoras y las reclamaciones que han presentado. Esta semana están llevando a cabo diferentes concentraciones. Creemos que tenemos que dar algún tipo de respuesta para ayudar a mejorar su situación. No piden mucho. Están solicitando que se mejore el convenio, sino que también han querido denunciar la situación que han vivido, como es el no estar provistas de las EPIs suficientes y la precariedad del trabajo por el tipo de jornadas que tienen. Creemos que el servicio que se está dando no es correcto. Por ello no estamos a favor de prorrogar el contrato."

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Orokorrean bat egiten dugu Evak azaldutakoarekin. Batzordean eta lehengo urtean ere bai azaldu genuen. Asko izan dira enpresa honen inguruan izan diren kexak. Ikusi besterik ez dago langileak mobilizazioetan zabiltzatela. Esan zenuten batzordeak beraiekin biltzeko aukera izan duzuela eta zeintzuk diren beraiek errebindikazioak. Ulertu genuen bat egiten zenutela. Nabariak dira beraien baldintzak ez direla egokiak eta gainera da oso feminizatua dagoen sektorea eta horrek lan-baldintzetan karga du. Maluk batzordean aipatu zuen aurten ez zela momentua plegu berriak ateratzeko. Gu ez goaz GOXARAren aurka baizik eta egin behar dena da pleguak atera benetan langileen baldintzak bermatzen dituenak. Aurkezten denak baldintza horiek bete egin beharko ditu. Udalak

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "En términos generales nos sumamos a lo expuesto por Eva. Ya lo explicamos en la Comisión y el año pasado. Han sido muchas las quejas que se han producido en torno a esta empresa. No hay más que ver que los trabajadores andáis en movilizaciones. Dijisteis en la comisión que habéis tenido la oportunidad de reuniros con ellos y cuáles son sus reivindicaciones. Entendimos que os uníais. Es evidente que sus condiciones no son las adecuadas y además es un sector muy feminizado y eso tiene una carga en las condiciones de trabajo. Malú mencionó en la comisión que este año no era el momento para sacar nuevos pliegos. Nosotros no vamos contra GOXARA sino que lo que hay que hacer es sacar unos pliegos que realmente garanticen las

azpikontratatzeko aukera du baina bere ardura bat da langileen egoera gainbegiratzea. Orain hemen egin behar duguna da langile horiek duintasun eza luzatu. Horren aurrean gure ezezko borobila. Badakizute Ordizian zein baldintza adostu dituzten. Udal gobernuari eskatzen diogu eredu ezberdinak aztertzen hasteko, bermatu ahal izateko langileen duinezko baldintzak eta baita erabiltzailerenak ere. Gure aldetik proposamenak egiteko borondatea azaltzen dugu. Egiten duguna da luzatu horretarako aukera egon arte salaketa horiek kasu egin gabe."

condiciones de los trabajadores. Quien se presente deberá cumplir estos requisitos. El Ayuntamiento tiene la posibilidad de subcontratar pero una de sus responsabilidades es supervisar la situación de los trabajadores. Lo que vamos a hacer ahora aquí es prolongar la falta de dignidad de estos trabajadores. Ante eso nuestra rotunda negativa. Ya sabéis las condiciones que han acordado en Ordizia. Instamos al gobierno municipal a que comience a analizar los diferentes modelos para poder garantizar unas condiciones dignas de los trabajadores y también de los usuarios. Manifestamos nuestra voluntad de hacer propuestas por nuestra parte. Lo que hacemos es alargar hasta que haya oportunidad de hacerlo sin atender esas denuncias."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Gaur egun ez dira baldintzak ematen lizitazio berri baten azterketari ekiteko, azken bi urteak nahiko anomaloak izan direlako. Lizitazio bat martxan jartzen denean aurreko datuetan oinarritu behar da eta horiek eguneratu. 2016an hitzartutakoaren arabera, igoera aplikatzen 1,75a. Beraiek sinatuta daukaten enpresako ituna bermatu egiten da. Ez dago hitzarmenik baina beraiek enpresako ituna dute. Gainerako herriekin konparatuta ez dago alderik, Ordizia izan daiteke salbuespena. Orain tokatzen zaiguna da dauden baldintzekin kontratuaren luzapena egin eta ekin lizitazio berriaren azterketari, enpresarekin bilduz eta datuak eskatuz, hitzarmena sinatzen badute jaso. Langile ordezkaritzarekin bilerak egin ziren eta hortik atera zen garai arteko baldintzak. Guk konpromisoa hartzen dugu berandu baino lehen lan horri ekiteko."

La Señora Alcaldesa (EAJ-PNV): "Actualmente no se dan las condiciones para iniciar el estudio de una nueva licitación, ya que los dos últimos años han sido bastante anómalos. Cuando se pone en marcha una licitación se debe basar en los datos anteriores y actualizarlos. Se aplica un incremento de 1,75 según lo pactado en 2016. Se garantiza el pacto de empresa que tengan suscrito. No hay convenio pero ellos tienen un pacto de empresa. En comparación con el resto de localidades no hay diferencias, Ordizia puede ser la excepción. Lo que nos toca ahora es hacer la prórroga del contrato con las condiciones existentes y empezar el estudio de la nueva licitación, reuniéndonos con la empresa y solicitando los datos, si es que firman el convenio recibirlo. Se mantuvieron reuniones con la representación de los trabajadores y de ahí salieron las condiciones. Nosotros nos comprometemos a ponernos manos a la obra cuanto antes."

Malu Valles Fernández andreak (EAJ-PNV): "Respondiendo en primer lugar a la portavoz del grupo socialista. Si no se adjunta el informe con la propuesta, pido disculpas. Lo he visto y le solicitaré a la responsable del área que os lo remita. De eso no se habló en comisión.

No tenemos ninguna queja presentada en al ámbito legal correspodiente sobre falta de EPIs e incumplimiento de contratos ni del convenio. Si hubiera habido algo de eso se hubiera producido la denuncia en el estamento correspondiente. Las trabajadoras reconocieron que en un primer momento hubo problemas con las mascarillas y no tuvieron todos los elementos adecuados, pero porque nadie los tenía. No había manera de comprar ante la escasez generalizada. Ahora dicen que eso no pasa, no existe falta de EPIs. El Ayuntamiento no tiene mano para tomar una decisión. Si hoy licitáramos el servicio, podríamos modificar, pero nos olvidamos que el objeto del contrato lo constituyen dos servicios: ayuda a domicilio y centro de día. El centro de día ha estado cerrado durante meses. La facturación no es real. No podemos presentar números para una nueva licitación. En 2016, nos reunimos con sindicatos, representantes de trabajadores y empresas, etc. Todo eso

se hará, pero hoy en día tenemos que prorrogar el contrato en las mismas condiciones y sin modificación alguna. Este servicio supone un alto coste para el Ayuntamiento tanto de personal como económico. El Ayuntamiento cobra a los usuarios como máximo 16€/hora. Un servicio que al Ayuntamiento le cuesta aproximadamente 23€ más IVA los días laborables y 27€ más IVA el fin de semana. Esa diferencia la asume el Ayuntamiento y eso que 2016 se subió 3€ por cada hora. El Ayuntamiento cuando licitó asumió el pacto de empresa y además soy conocedora de que la empresa ha reducido la jornada laboral. No se darán las mejores condiciones y es verda que es un trabajo feminizado, precario y con una jornada muy complicada, pero mirando otras licitaciones, no he visto cómo solventarlo. Si alguien conoce cómo el Ayuntamiento puede controlar esas jornadas, agradecería que me lo dijera. A parte de lo económico, lo que las trabajadoras señalan de las jornadas, es dificil de gestionar porque no sólo tenemos que vealr por los intereses de las trabajadoras, tambien debemos hacerlo por los intereses de los ciudadanos y lo que pasa es que el ciudadano no necesita el servicio a las doce del mediodía, sino a otras horas. El hecho de que las trabajadoras se manifiesten delante del Ayuntamiento, ¿deberían hacernos tomar diferentes decisiones?. Entiendo que hay que analizarlo todo en su conjunto y tomar la decisión que corresponda."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Luzapena egin eta gero, nahitaez hurrengo lizitazioa prestatzen hasi behar gara denekin elkartuz. Ikusiko degu zein formula erabili. Ordutegiak zailtasunak ekartzen ditu, baina konpromisoa hartzen dugu beste herrietako ereduak ikusi eta lantzeko."

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Una vez realizada la prórroga, tenemos que empezar a preparar la siguiente licitación reuniéndonos con todos. Veremos qué fórmula utilizar. El horario plantea dificultades, pero nos comprometemos a ver y trabajar modelos de otros pueblos."

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Beste aukera izango zen zaintza publifikatzearena. Nik uste dut begiratu behar dugula egoera hobeagoan dauden herrietako ereduak. Zerbitzua konplexua da baina langileen lanaldian jarraikoak izatea bermatu beharko litzateke eta agian desplazamenduak ordaintzea. Beste aukera ez azpikontratatzea izango litzateke."

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Otra opción sería la de publificar los cuidados. Yo creo que tenemos que mirar los modelos de los pueblos que están en mejor situación. El servicio es complejo, pero habría que garantizar la continuidad en la jornada laboral del personal y tal vez pagar los desplazamientos. Otra opción sería no subcontratar.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ-PNV,)
Aurkako botoak: 7 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

Tras realizar la votación se ha obtenido el siguiente resultado:

Votos a favor: 10 (EAJ-PNV,)
Votos en contra: 7 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Abstenciones: 0

En consecuencia, se ha aprobado la propuesta con la mayoría absoluta.

c.- ESLEIPENA: PLAZAPE TABERNAREN USTIAPENA, ONDOKO KOMUN ETA DUTXA PUBLIKOEKIN BATERA, ETA PLAZAREN (AZPIA PLAZA ETA ZUBIMUZU) ETA MERKATUAREN DINAMIZAZIOA.2021BOCU0018
2021eko irailaren 17ko Kontratazio Mahaiaren proposamenaren berri eman da:

c.- ADJUDICACIÓN: EXPLOTACIÓN DEL BAR PLAZAPE, JUNTO CON LOS BAÑOS Y DUCHAS PÚBLICAS ADYACENTES, Y LA DINAMIZACIÓN DE LA PLAZA (PLAZA AZPIA Y ZUBIMUZU) Y DEL MERCADO.

Se ha informado la propuesta de la Mesa de Contratación del 17 de septiembre de 2021:

"*1.- 2021-07-29. Udalbatza Osoak onartu zituen baldintzak pleguak aipatutako kontratazioa deialdia publikoaren bidez burutzeko.*

*Urteko lizitazio prezioa: canona dirutan: 9.314,51€ + BEZ. Egikaritze epea: bi urte gehi urte beteko hiru luzapen.*

*1.- 29-07-2021. El Ayuntamiento Pleno aprobó los pliegos de condiciones para la contratación indicada mediante convocatoria pública.*

*Presupuesto de licitación anual: canon en metálico: 9.314,51€ + IVA. Plazo de ejecución: dos años más tres prórrogas de un año cada una.*

*2.- 2021-07-30. Deialdia Euskadiko plataforman argitaratzea.*

*2.- 30-07-2021. Publicación de la convocatoria en la plataforma de contratación.*

*3.- 2021-08-16. Proposamenak aurkezteko epea. Epe horretan enpresa bakarraren eskaintza aurkeztu zen: ARDOA ETA AZOKA, S.L.*

*3.- 16-08-2021. Fecha fin de presentación de proposiciones. En ese plazo sólo se presentó la oferta de una única empresa: ARDOA ETA AZOKA, S.L.*

*4.- A artxibo elektronikoaren dokumentazioa kalifikatu eta gero, errekerimendua egin zitzaion lizitatzaileari EKAB eta konpromisuzko idatzia zuzentzen den eguneko data eta sinadurarekin aurkezteko.*

*4.- Calificada la documentación presentada en el archivo electrónico A, se efectuó requerimiento al licitador para subsanar el DEUC y el escrito de compromiso, fechados y firmados a la fecha de su subsanación.*

*5.- 2021-09-03. Erregistro elektronikoaren bidez (teknikoki ezinezkoa delako, plataformaren bidez egiteko, esaten duenez), EKAB agiria zuzendua eta zerbitzuari atxiki beharreko langileak identifikatzen dituen idatzia zuzenduta aurkezten ditu. Ez du koordinatzailerik identifikatzen, ezta hizkuntza-eskakizuna betetzen dela egiaztatzeko konpromisorik ere.*

*5.- 3-09-202. Presenta mediante registro electrónico (por imposibilidad técnica, según refiere, para hacerlo a través de la plataforma), el DEUC corregido y escrito corregido identificando a los trabajadores a adscribir al servicio. No identifica a la coordinadora ni tampoco compromiso de acreditar el cumplimiento del requisito lingüístico.*

*6.- Dena dela, lizitatzaileari onartu egin zaio lizitazioan parte hartzea, lizitazioko faseak gaindituz gero, eta behin betiko esleipena egin aurretik, koordinatzailea identifikatzea eta hizkuntza-gaitasuna karatulako 13. atalean adierazitako moduan egiaztatzeko eskatuko zaiolako.*

*6.- Sin embargo, se admite a la empresa licitadora a participar en la licitación, ya que en caso de superar las fases de la misma, y antes de la adjudicación definitiva, se le exigirá identificar a la coordinadora y acreditar la competencia lingüística de la manera señalada en el apartado 13 de la carátula.*

*7.- 2021-09-06. B artxibo elektronikoa ireki zen eta edukia bokal teknikoei pasa zitzaien balorazioa egiteko.*

*7.- 6-09-2021. Apertura archivo electrónico B y remisión de su contenido a valoración de las vocales técnicas.*

*8.- 201-09-16. Kontratazio-mahaiaren bilera. Bertan, aurkeztutako memoriari buruz egindako txostena ezagutzera eman da, eta ontzat eman da. Formula automatikoen bidez ebaluatu ezin diren irizpideetan, lizitatzaileak lortutako gehieneko puntuazioa 50 puntukoa da eta lizitatzaileak lortutakoa, 33 puntukoa izan da.*

*8.- 16-09-2021. Reunión de la mesa de contratación en la que se da a conocer el informe emitido en relación a la Memoria presentada, y se da por bueno aquel dejando constancia de que la puntuación de los criterios no evaluables mediante fórmulas automáticas es como máximo*

*Hurrengo fasera igarotzeko gutxieneko atalasea: %50a (146.3 artikulua), gainditu egin du.*

*9.- 2021-09-17. C artxibo elektronikoa irekitzea: automatikoki ebaluatzen diren irizpideak (Kanona dirutan: 9.314,51€ urtean, gorantz hobetu daitekeena).*

*10.- Lizitatzaileak proposatutako kanona dirutan: 12.500,00+ BEZ*

*11.- Lizitatzaileak lortutako puntuazioa, guztira ondorengoa da:*

*de 50 puntos y los obtenidos por la licitadora han sido, 33 puntos.*

*Supera el umbral mínimo 50% para pasar a la siguiente fase (art. 146,3)*

*9.- 17-09-2021. Apertura del archivo electrónico C: criterios evaluables automáticamente (canon en dinero: 9.314,51€ anuales, mejorable al alza).*

*10.- El canon en metálico propuesto por la licitadora es de: 12.500,00 € + IVA.*

*11.- La puntuación total obtenida por la licitadora es la siguiente:*

| Enpresa | Memoria | Eskaintza | Puntuak |
|---|---|---|---|
| ARDOA ETA AZOKA, S.L. | 33 | 50 | **83** |

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari (Udalbatza Osoa) ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

***Lehenik**. Plazape tabernaren ustiapena, Beasaingo Udalaren jabetzakoa, ondoko komun eta dutxa publikoekin batera, eta plazaren (azpia plaza eta Zubimuzu) eta merkatuaren dinamizazioa kontratatzea ARDOA ETA AZOKA, S.L.**r**i esleitzea.*

***Bigarren**. Esleipena baldintza-pleguen eta enpresak aurkeztutako eskaintzaren arabera egiten da.*

***Hirugarren**. Esleipendunak dirutan ordaindu beharreko urteko kanona: 12.500,00 €/urteko + BEZ*

***Laugarren**. Egikaritze epea: 2 urte eta urtebeteko beste hiru luzapeneko aukera.*

***Bosgarren**. Berme epea: 6 hilabete harrera egiten denetik kontatuta.*

***Seigarren**. Kontratuaren arduraduna, kultura azpiarloko arduradun teknikoa izango da.*

***Zazpigarren**. Esleipendunari eskatzea hamar egun balioduneko epean, errekerimendua egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, dokumentazio hau aurkez dezala:*

*En consecuencia, la Mesa de Contratación efectúa la siguiente propuesta de acuerdo al órgano de contratación (Ayuntamiento Pleno)*

***Primero**. Adjudicar la explotación del bar Plazape, local propiedad del Ayuntamiento de Beasain, junto con los baños y duchas públicas adyacentes, y la dinamización de la plaza (plaza azpia y Zubimuzu) y del mercado a ARDOA ETA AZOKA, S.L.*

***Segundo**. La adjudicación se efectúa con arreglo a los pliegos de condiciones y a la oferta presentada por la empresa.*

***Tercero**. Canon en metálico anual a abonar por la adjudicataria: 12.500,00 €/año + IVA*

***Cuarto**. Plazo de ejecución: 2 años con posibilidad de tres prórrogas de un año cada una.*

***Quinto**. Plazo de garantía: 6 meses desde que se recepcione el servicio.*

***Sexto** Se designa como responsable del contrato a la responsable técnica Responsable de la subárea de cultura.*

***Séptimo**. Requerir al adjudicatario para que en un plazo de diez días hábiles a contar a partir del*

- *1.250,00 €ko behin betiko fidantza.*

a) *Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, EJZn alta emanda.*
b) *Koordinatzailea identifikatzea.*
c) *Taberna zerbitzuaren prestazioari atxikitako langileek eta koordinatzaileak hizkuntza gaitasuna dutela egiaztatzea bi egiaztagiri hauetako baten bidez:*

- *Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzaren Europako Erreferentzi Marko Bateratuko maileki parekateko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak arautzen dituen titulu eta ziurtagirak.*

- *Edozein Euskaltegi homologatuak emandako agiria, Europako Erreferentzi Markoaren B" mailari dagokiona.*

***Bederatzigarren**. Fidantza aurkeztu ondoren, behin betiko esleipena egingo da. Horretarako, Alkateari ahalmena ematen zaio, eta, ondoren, dagokion administrazio-kontratua sinatu beharko da."*

*siguiente al del requerimiento, aporte la siguiente documentación:*

- *Fianza definitiva por valor de 1.250,00 €.*
- *Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social, alta en IAE.*
- *Identificar a la coordinadora.*
- *Acreditar la competencia lingüística del personal adscrito a la prestación del servicio de bar y de la coordinadora. Se acreditará de alguna de las dos maneras siguientes:*
  *- Títulos y certificados regulados por Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera y equiparación con los niveles Marco Común Europeo de referencia para las lenguas.*

  *- Certificado emitido por cualquier Euskaltegi homologado, del nivel de competencia B2 del Marco Europeo de Referencia.*

***Noveno**. Tras presentar la fianza, se efectuará la adjudicación definitiva para lo cual se facultará a la Alcaldesa y posteriormente se deberá firmar el correspondiente contrato administrativo. "*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

En el turno de intervenciones los asistentes se han mostrado de acuerdo con la propuesta.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

